



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/06/06

Batzar Nagusiek Barakaldoko Profusa koke-bateriarako babesa eskatu dabe

Bizkaiko Batzar Nagusiek EH Bilduk eta Talde Mistoak aurkeztu dituen ekimen bi onartu ditue gaur goizean, Barakaldoko Burtzeña auzoan dagoan Profusa planteia Kultur Intereseko Ondasun lez babesteko espedientea zabaltzea eskatzeko Eusko Jaurlaritzari. Bertan dago Bizkaiko koke-bateria “bakarra”.

Instalazioak, holango teknologia euker Euskadiko altzairugintzaren “azkenak” dira. Hori dala eta, Batzarretako taldeak ados jarri dira, Eusko Jaurlaritzak jagokon babeseko espedientearen izapidetzea “harik eta arinen” amaitu daiala eskatzeko orduan. Proposamena aurkeztu daben taldeek adierazo dabenez, Industria Ondarearen Euskal Alkarteak salaketea aurkeztu eban, lantegia “desmontetan” ari zirala eta, eta horren ondorioz, hurrengo belaunaldiei gure lurraldearen industriaren jatorria azaltzeko “ezinbestekoa” zan ondarea arriskuan egoalako.

Ideak Bizkaiko Batzar Nagusietako talde guztien aldeko eretxia jaso dau, baina EH Bildu abstenidu egin da Talde Mistoak aurkeztu dauen ekimenean, bere eretxiz berearen “kopia” dalako, egun batzuk geroago aurkeztutakoa, eta PP taldeak gauza bera egin dau koalizio abertzaleak aurkeztu daben proposamenagaz.

Dana dala, ekimen bietan helburu bera jasoten da, Eusko Jaurlaritzak babeseko espedientea hasi daiala. Gauza bera eskatu dabe Barakaldoko osoko bilkurak eta Eusko Legebiltzarrak berak. Horrez gain, lantegi hori “desmontetako” lanak geratzeko, kendutako edo kaltetutako elementuak berreskuratzeko eta instalazio osagarrien osotasuna kontserbetako beharrezkoak diran neurriak hartu daitezala be eskatu dabe.

Batzarretako Euzko Abertzaleak taldeak guzurtatu egin dau lantegia desmontetan ari danik, Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundiko eta Barakaldoko Udaleko teknikariek orain denpora gitxi egin dituen bisitetan ikusi danez. Hori bai, bisita horreetan “materialen mobimenduak” hauteman dira.

Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako diputatu andreak, bere aldetik, EH Bilduk eta Talde Mistoak gai bera dala eta egin dituen agerraldi eskariei erantzunez, Eusko Jaurlaritza instalazioen egoerearen gaineko txosten teknikoa “bukutzen ari dala” esan dau. Txosten horren ostean babeseko espedientea jarriko da martxan.

Hori gertatu arte, Foru Aldundia, bere eskumenak kontuan izanda, “ezin da modu argian sartu” gai horretan. Dana dala, egokiena bideragarritasuneko proiektua egitea izango litzateke, “Industria Ondarearen gaineko Euskal Plana” izenekoaren barruan. Aurreko batzorde batean diputatu andreak berak planteatu eban idea hori, Eusko Jaurlaritzagaz eta hiru Foru Aldundiakaz batera diseinatu behar da. Bertan, ondarearen elementu “esanguratsuenetan” jarduten hasteko “lehentasunak” ezarri beharko dira, modu orokorrean, herrialde moduan.

URDUÑAKO AMABIRJINAREN MONUMENTUA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Beste alde batetik, Euskera eta Kulturako diputatu andreak adierazo dauenez, Urduñako Amabirjinaren monumentua “konpontzea” “ez da lehentasuna” Aldundiarentzat. Kontuan izan behar da horren titularra ez dala Foru Aldundia, eta ez dagoala Bizkaiko lurretan.

Talde Mistoak eskaria egin dau Foru Aldundia Batzar Nagusietara etorri daiten, monumentua berreskuratzeko eta monumentua dagoan Txarlazo mendian begiraleku bat egiteko azterlanaren gaineko azalpenak emoteko. Azterlan hori ikusita, proiektua “2,2 milioi eurokoa” dala esan dau Bilbaok. “Ez litzateke” bidezkoa izango “Sailak ez daukan” diru hori hormigoizko estruktura batean gastatea, “Urduñako Udalak berak be monumentua berreskuratzeko interes handia erakutsi ez dauanean”, adierazo dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
06/06/2016

Las Juntas Generales piden protección para la batería de coque de Profusa en Barakaldo

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado esta mañana sendas iniciativas de EH Bildu y grupo Mixto para pedir que el Gobierno vasco inicie un expediente de protección como Bien de Interés Cultural de la planta de Profusa, en el barrio baracaldés de Butzeña, donde se encuentra la “única” batería de coque de Bizkaia.

Las instalaciones son consideradas las “últimas” de la siderurgia integral vasca con este tipo de tecnología por lo que los grupos junteros se han puesto de acuerdo en que el Ejecutivo vasco culmine “cuanto antes” la tramitación del correspondiente expediente de protección. Según los grupos proponentes, la Asociación Vasca de Patrimonio Industrial había denunciado que la factoría estaba siendo “desmantelada”, por lo que estaba en riesgo un patrimonio “imprescindible” para dar a conocer a las futuras generaciones los orígenes industriales del territorio.

La idea ha sido apoyada por todos los grupos junteros de la Cámara vizcaína, si bien EH Bildu se ha abstenido en la presentada por el grupo Mixto al considerar que es una "copia" de la suya y se ha presentado días después; y el PP ha hecho lo mismo en la de la coalición abertzale.

El caso es que en ambas iniciativas se recoge la misma intención, que el Gobierno vasco inicie el expediente de protección, como así le ha pedido también el pleno municipal de Barakaldo y el propio Parlamento Vasco. La Cámara vizcaína reclama que se adopten las medidas necesarias para paralizar el “desmantelamiento” de la planta, "reponer" los elementos retirados o dañados, y "preservar" el conjunto de sus instalaciones complementarias.

El grupo juntero Nacionalistas Vascos ha desmentido que se esté produciendo un desmantelamiento de la planta, en virtud de varias visitas cursadas recientemente por técnicos del Gobierno Vasco, la Diputación y el Ayuntamiento de Barakaldo, que sí habrían detectado “movimientos de materiales”.

INFORME TÉCNICO

Por su parte, la diputada de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, en respuesta a dos peticiones de comparecencia presentadas por EH Bildu y grupo Mixto por este mismo tema, ha explicado que el Gobierno vasco "está finalizando" un informe técnico sobre el estado de las instalaciones, que dará pie a la incoación del expediente de protección.

Hasta que esto último no ocurra, la Diputación no puede competencialmente “entrar de una manera clara” en el asunto, aunque ha avanzado que lo suyo sería elaborar un proyecto de viabilidad en el marco de lo que ella ha denominado un "Plan Vasco de Patrimonio Industrial". Esta idea, que ya fue planteada en una comisión anterior por la diputada, debe diseñarse junto al Gobierno vasco y las tres diputaciones. En ella, se establecerían las “prioridades” para comenzar



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

a actuar sobre los elementos del patrimonio industrial “más significativos” de una manera global como país.

MONUMENTO A LA VIRGEN DE ORDUÑA

Por otro lado, la diputada de Euskera y Cultura se ha referido a que “no es prioritario” para la Diputación “arreglar” el monumento a la Virgen de Orduña, cuya titularidad no es de la Institución foral ni se encuentra en terrenos vizcaínos.

El grupo Mixto había solicitado que la Diputación compareciera en Juntas Generales para informar del estado de realización de un estudio que sirviera para calibrar la recuperación del monumento y la creación de un balcón-mirador en el monte Txarlazo donde se ubica. En virtud de este estudio, Bilbao ha cifrado el proyecto de rehabilitación en “2,2 millones de euros”. “No sería coherente” gastarse ese dinero "que no posee el departamento" en una estructura de hormigón, cuando “ni siquiera el ayuntamiento de Orduña se ha mostrado muy interesado” en su recuperación, ha señalado.